




3-KANALAK

Gure enpresaren persentzia zabaltzeko eta gure zerbitzua ahalik eta pertsona gehienei helarazteko bi kanal mota nagusi bereiz daitezke.

Alde batetik “online” izango direnak, hau da, gailu elektronikoen baten bidez soilik ailegatu ahaliko direnak. Hauek, programatzaile batek sortutako aplikazioa eta webgunea izango dira. Biak Android eta Ios-entzako eskuragarriak. Bi plataformak hauek antzeko funtzioak izango dute. Bai aplikazioa eta bai web-gunea enkarguak egiteko, informazioa jasotzeko eta gurekin harremanetan jartzeko eginak egongo dira, bertan agertzen den telefono zenbakia eta gmaila erabiliz.



→ Aplikazioaren funtzionamendua hau izango da. Lehenik, pantailan, erregistratzeko edo saioa hasteko aukera ematen du. Gero erabiltzaileak alergia-rik edo intolerantziarik duen aipatu behar du, horrela, programak osagai horiek identifikatu eta osagai horiek dituzten menuak deskartatu ditu. Arlo hau dietista baten laguntzaz sortuko dugu. Gainera, begetariano edo beganoa den aipatu dezake eta programak alergiekin egiten duen funtzio berdina egingo du. “Saioa-hasi” sakatzen bada, jadanik sortuta dagoen kontuko erabiltzailearen datuak sartu behar dira.



Bezero posible gehiagorengana heltzeko, sare sozialak erabilio ditugu gero eta erabilpen handiagoa dutela ikusita. Horien bidez eta “influencer” batzuk kontratatuz gure zerbitzua zabaltzea eta publizitatzea espero dugu.

Beste alde batetik, modu “off-line” baten bitartez ere bultzatuko dugu gure burua. Herrietako kaleetan degustazio txokoak jarritz. Gure jakiak hobeto saltzeko txokoa modu erakargarri batean atonduta egongo da (gure enpaketaio kutxen moduko diseinuarekin). Hau aprobetxatuz, ingurukoei eskuorriak banatuko dizkiegu. Gainera, kontratatutako motorlariak ere eskuorri hauek banatzen joango dira Bilboko eta inguruko etxeetan utziz. Jakien banaketak guk ezarritako banaketa zerbitzuari (tabernetatik bezeroarengana) esker funtzionatuko du, enkargatutako jatetxean edo tabernan enpaketatuta egongo litzatekelako jada.